

## BIZKAIERA

Azken 35 urteotan Euskal Herriko zazpi probintzietako 23 baserrian euskara aztertzen, esaldiak eta atsotitzak biltzen ibili eta gero, iritzi honetara heldu naiz: eguzkiz eguzki egiten dutenen euskara toki guztietan oso ona da.

Bizkaitarrek, ordea, eta bizkaieraz mintzo diren aramaioarrek eta giputz askok, hau da, arrasatearrek, onatiarrek, elgoibartarrek, eibartarrek... uste oker bat dute: Goierriko, Leitzako edo Nafarroa Beherako euskara beraiena baino hobea dela. Eta batez ere Bermeoko, Eibarko edo Ondarroako euskara txarra dela. Ez da egia.

Nondik dator uste hori? Bi alderditatik: fonetikatik eta lexicotik.

Hizkuntzetan hiru alderdi ongi bereizi behar dira: alderdi fonikoa, lexikoa eta egitura (structure).

Gipuzkera edo Nafarroa Beherako euskara fonetikaz denaz bezainbatean bizkaiera baino goxoago eta osatuago dela aitortu behar da. Eibarko edo Bermeoko euskara Berastegiko, Leitzako, Tolosako edo Landibarreko euskara baino latzago, gogortxoago, zabartxoago da belarriarentzako.

Aide batetik bizkaierak ez ditu s eta z, ts eta tz bereizten.

Bestaldetik bizkaierak a, o eta u gipuzkerak baino sarriago erabiltzen ditu: barria, baltza, dot, dozu, urten. Hika mintzatzerakoan jua-ren antzeko soinurik askotxo entzuten da bizkaieraz: ein biajuau.

Fonetika, ordea, ez da hizkuntzaren oinarria. Osasuna ez datza pertsonaren azal mehe edo lodian edo aurpegiaren ezti-tasunean. HIES (AIDS) daukan neskatilak, osasun ona daukan beste neskaita batek baino hazpegi politagoak izan litzake.

Molde berean, euskalkien bikaintasuna eta osasuna ez datza belarrientzako goxo edo latza izatean.

Hauxe ere egia izan liteke: Bizkaiko zenbait eskualde edo herritan erdal hitz nahiko sartzen dituztela. Horrek ez du, ordea, euskara moteltzen edo txirotzen.

Alemanez hitz egiterakoan, adibidez, frantses hitzak sartzen badituzu, zeure alemana bikainago, landuago irudituko zaie bertakoei. Intervenieren, renovieren... eta horrelako hitzak erabiltzea dotoretzat joko dute, hitz horien ordean anglojaxonak egon arren.

Gauza bera esan liteke ingelesez. Ingelesak atzerriko hitzak bere egiteko dohain handia du. Macho, bayou, zydeco, cajun, latino, torero eta beste mila bere eginak ditu. Ez da horregatik itsustu, aberastu baizik.

Dena delarik, bizkaierak erdarazko hitzak onartu baditu ere (zorioneko bentana eta abar), beste euskalkiek erabiltzen ez duten lexiko jatorra erabiltzen du.

Bai, coeteris paribus, hanbatik hanbatean euskaldunok, ahal delarik, gauzak euskal hitzez esan beharko genituzke.

Baina eguneroko hizketan erdal hitzak sartzen dituztenek euskaraz gaizki egiten dutela esaten duenak ez du hizkuntzei buruzko jakinduria handirik.

Behin eta berriz esan behar da. Eibarren eta Bermeon euskaraz gaizki egiten dela uste dutenek, hizkuntzalaritzan (suspense) merezi dute.

Bizkaiera beste euskalkien aldean aldrebesa dela esatea inozokoria da eta bide batez euskaldunen erdiak euskal gaiztotzat madarikatzea.

Izan ere HIZKUNTZAREN MUINA ETA OINARRIA EGITURA da. Eta horretan ez dago zalantzarik: bizkaierak ez diela beste euskalkiei inongo zorrik. Aitzitik, denetan gailen da.

Bizkaierak ongi gorde ditu - beharbada Euskal Herriko azken mugan dagoelako eta euskalkirik mintzatutena eta zabalduena delako - beste euskalkietan galdu ditugun zenbait molde jakingarri.

Horietako molde batzuk, intentsiboak eta erakusleak, adibidez, lehenagoko testu zaharretan ere aurkitzen ditugu. Hots, lehenago Bizkaian ez ezik, beste eskualdetan ere erabiltzen ziren. Gero galduz joan dira, ordea.

Nik Ian honetan oso laburki, bizkaieraren eta batez ere Aramaion egiten den euskararen zenbait alderdi aipagarri azalduko ditut. Izan ere, niri galdetuz gero, egungo egunean euskararik hobereena non egiten den, Aramaion eta beraren inguruko herrietan egiten dela esango nuke, Arrasaten, Onatin eta abarretan.

Garai batez baserrietan kutxa eta tresna zaharrak, bota egiten zituzten edo merke saldu. Ez zekiten gauzen balioa.

Bizkaiera ere bizkaitar, arabar eta giputz askok gutxietsi egiten dute, zenbat balio duen ez dakitelako.

Bizkaiera ezagutuago, ohoreago izango duzu.

## 1. LEXIKOA

Bizkaierak bikaintasun handia erakusten du hitz alorrean.

## 1.1.

Egia da Bizkaiko zenbait eskualdetan pastorea, bentana, bajau eta horrelako erdal hitzak erabiltzen direla. Baina bai eta beste euskalkietan erabiltzen ez diren euskal hitzak ere.

Gipuzkeraz/bizkaieraz: korrika/antxixinka, a(r)ineketan; debalde/doan; putre/sai; esperon nago/zain nao edo itxeitten nao; akabatu/amaitu; mantendu/euntsin; posible da/leikiena da edo balitteke; imposible da/ezin leikiena da edo ezinezkoa da; erramu/erenuntze; espres/berenberegi edo berenberez; ez egin kasurik/ez egin ja(ra)monik; etxera etortzeko idea dute/etxera etortzekuek die edo etortzekotan dao; konponduko degu/tolostuko dogu; etxea ondo preparatua/etxe ingurue ondo atondute dao...

## 1.2. Bizkaieraz egiten diren bereizkuntzak.

## 1.2.1.

Bizkaieraz ongi eutsi diote senidetarteko alor semantikoari. Neskak mutilari oso ederki esaten dio: neba. Gipuzkoan neskak "nebari" anaia esaten dio. Zer esango genuke mutilak arrebari ahizpa esango balio. Bada, huts berdintsua da neskak mutillari anaia esatea. Anaia familiako mutilek esan behar diote elkarri, ez beste inork.

Familiako alor semantiko zuzena:

Mutilak mutilari: anaia Julian Bittorren anaie da.

Mutilak neskari : arreba Jesusa Julianen arrebie da.

Neskak mutilari : neba Julian Jesusaren nebie da.

Neskak neskari : ahizpa Jesusa Mariaren aiztie da.

## 1.2.2

Bizkaieraz gorputza eta gorpua ongi bereizten dira:

- Bai ederra Estitxuren gorputza!
- Alaitzen gorpua lurpian sartu debe.

## 1.2.3 Bai eta okela eta haragia ere.

- Okelie oso ona dao/Ume orrek aragi trinkoa dau.

## 1.2.4. Bai eta atzaparra (eskukoa) eta be(li)atza (beliekoa, hankakoa)

## 1.2.5

Bizkaieraz oso ondo bereizten dira inor/beste.

- Inor orokorki erabiltzen da (edozein adierazten du):
- Ino(re)n lepotik bizitzeko ona ori!
- Ori bai dala inoren burutik pentsatzea!
- Ori inori kalte egiteko beti prest.
- Hori inorengatik beti gaizki esaka.
- Inoren minak atx gutxi.
- Beste, ostera, jazargoan, oposizioan erabiltzen da eskuarki:
- Batzuk onak die, bestiek txarrak".

## 1.2.6

Bizkaieraz ongi bereizten dira bere/beraren.

"Bere" konplemento zuzena denean erabiltzen da.

"Beraren" genitibo denean.

- Amak bere umie maitte dau. Bera(re)n aitzak ez.

Mugaz beste aldean bere/haren bereizkuntza egiten dute haren vianda zen othiz eta bassa eztiz (Leiz. Mat. 3-4).

Latinez ere horrela:

- Mater filium suum amat; illius soror non amat eum

### 1.2.7

Bizkaieraz, baztaneraz eta mugaz bestaldeko euskaraz bezala ongi bereizten dira NOR eta ZEIN izenordeak. Gipuzkoan ez.

- Nor etorri da? Nor da? /Zein etorri da, Gorka ala Miren?  
(Talde bateko bat)

### 1.2.8

Oso diferente dira bizkaieraz baten/batean.

- Etxe baten egon naz /Etxe batean ondo eta bestean txarto

### 1.3.Hitz crabilerak egokiak:

- Zazpi urte barik aita il jatan (baino lehen).
- Ordu bi barik etorriko da (baino lehen).
- Melokotoia barik melokotoia esaten dau (esan beharrean).
- Artu liburua eta illebetesarrean ikesi noan.

## 2. MORFOLOGIA.

### 5.1.

Bizkaierak, gipuzkeraren aldean askoz hobeki zaintzen du a organikoa: gauza, arnasa, eliza

Mugatugabea ere bizkaierak gipuzkerak baino hobeki erabiltzen du:

- Ezti ekarten joan da. Egur egiten dabil. Jakitun ifini euren.

Abarotan daoz ardiak. Kerizpetan daoz ardixek. Basotan euki du etzalde orrek!. Kotxe orrek gasolinetan gastetan dau! Olgetan dabil. Gipuzkoan entzuten dugu: Zah)ian begiratu eta irinean eralgi. Bizkaieraz: Zaietan begiratu eta urunetan eralgi.

## 2.3.

- rik + superlatiboari maiz eusten dio bizkaierak:
- Txakurrik edarrena.

2.3.1. -rik + konjuitzioa (konparaketan) ecio adberblo.  
Sarri entziiten da.

- Pobre arrorik bano txarraurik eztau/ Gipuzkoan: "Pobre arroa bano gauza txarragorik ez"
- Ordurik asko dauka egunek, bier eitteko.

## 2.4.

Gipuzkerak baino sarriago erabikzen ditu bizkaierak —txo, —txu ttipigarriak: apurtxo bat, etxe txikitxo,txikitxu, gutxitxo

## 3. BERFIZKETAK

Bizkaierak eskuarki, lehengo idazle zaharrek bezala, bereizketa txit egokiak egiten ditu. Beste euskalkietan galduz joan dira.

3.1. *Erreplexihoak*: neure, zeure ...

- Nire txakurra oso politte da/Nik neure txakurra maite dot.
- Zure txakurra politte da/Zuk zeure txakurra maite dozu.
- Gure txakurra .../Guk geure txakurra...
- Zuen txakurra... /Zuek zeuen txakurra...

## Eguneroko Meza Santua

Har ditzagun, adibidez, gipuzkerazko eta bizkaierazko eguneroko "Meza santua" liburuxka. Gipuzkoako euskara pobrea-go eta murrizago dela ikusiko dugu.

*Gipuzkeraz      Bizkaieraz*

- santu egizkizu.. zure Espiritua      ... zeure Espiritua ...
- Zurea dezu Erregetza, zureak      Zeurea dozu Erregetza,

ospe eta indarra

zeureak ospe...

3.2. *Intentsiboak*: ncu, zeu...

- Ni beti joaten naz/ Neu joango naz.
- Zu beti joaten zara/Zeuk joango zara.
- Gu/Geu
- Zuek/Zeuek

Idazle klasikoetan gauza bera ikusten dugu:

## Leizarraga:

- hunetan applika ahal dezaket neure defensionetan (Sarrera)
- Egyptetik deithu ukan dut neure Semea, Mat. 2,15
- Eta eztezazuela presumi zeurok baithan erraitera, Mat. 3-9
- Baldin Iainkoaren Semea bahaiz, egotzak eure burua beherera, Mat. 4.6
- Utzi ezak han eure oblationea Mat 5.24 (dena eurez betea)
- eyezue zeurok jatera, Mat 15.16

## x\xular

- Zeurea, zeurk egin baitzendu bezala, 11
- Zeren baldin zerorrek bizi zarela zeure arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta zeurk egin duzun falta, 167
- .. zeuen ongiegiak... iratxekitzen deratzue, 15
- Zeuen buruon etsaiak, 15
- Ordea ezpainintzen neure buruaz fida, 6
- Neurk egin nuen gizona, neurk deseginen dut, 80
- Geure buruak... errekaitatu (proveer), 40
- .. geure anaia saldurik baikau, 286
- Hargatik gabiltza bada orain gerok ere asalatuak, 286



Gipuzkoan eta beste eskualdetan badira hauen antzeko intentsiboak, neroni, nihaur... baina askoz bakanago erabiltzen dira.

#### Egoneroko Meza Santua

##### *Gipuzkera*

##### *Bizkaiera*

- |                                    |                             |
|------------------------------------|-----------------------------|
| - Zuk kentzen dezu munduko pekatua | Zeuk kentzen dozu...        |
| - Zu bakarrik Santua               | Zeu bakarrik Santua         |
| - .. guk ere., goresten ditugu     | ... geuk bere               |
| - Jesukristo.. Zuk esana da        | Jesukristo .. Zeuk esana da |

Negargarria hauxe da: Arrasaten, Onatin, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Eibarren eta bizkaieraz egiten den inguruetako herrietan beren euskara jatorra baztertu eta gipuzkera murriz horri eutsi diote meza emateko eta entzuteko.

#### 3-3- *Erakusleak. Deiktikoak.*

Hurbiltasuna ala urruntasuna adierazteko erakusle ezberdinak erabiltzen ditu bizkaierak. Hurbiltasuna adierazteko lehen-go euskaraz eta bizkaieraz o morfema erabiltzen da. Urruntasuna adierazteko a.

#### 3-3.1. Ean, Izpazterren, Elaiitxoben eta iiiguruetati ongl berelxteii dute:

A- Emen, or, orain, gaur, aurten BERTON

B- An, orduan, atzo, biar, igaz BERTAN.

##### *Bizkaian:*

- Gaubeon mendira noa / gaubean mendira joan zen
- Emen berton dao elexie / An bertan dao elexie
- Orain berton nua. / Orduan bertan agertu zan
- Zuek, oingo gaztiok. / Orduko gazteak be onak zien
- Nik goizeon ein dot. / Goizean egiten eban beharra
- Bertora.no etorri zaitxez. / Ber berta(ra)no fuen da.
- Aspaldian gaixorik egon zen /Aspaldion gaixorik dago

*Axular.*

- Orain lege berrion AX (Axular)
- Orain arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akabatzeon AX
- Orai, arratseon, atrapatu zareneon AX
- Orai bereon, presentean AX / Orduan zeure ondokoei eta han presentean AX
- Ber berta(ra)no fuen da.
- Lengo gaztiok be jatorrak zien.

2.3/2.

- Guk, (zuek) gizonok eitten dou (dozue) hori
- Zuek, o(ra)ingo gaztiok/Gizonak no(r)a fuen die?

3.3.3.

- Egun on, lagun maiteok!"/Iparraldean dagoz nire lagun maiteak
- Egun on, jaunok!
- Bixok bakarrik gaz emen. Beste bixek etxien geldittu die
- Egun on Jangoikuak dizuela guztioi! (B)
- Entzun, Jauna, gu pekatariion negarra
- Euskaldun geienon biotzetan.
- gauza hauen guzion beharra baduzuela Leiz. Mat 6.32
- obra on horion guztion... zeorrek zeure eskuz egitea AX
- horiok guztioi AX

3.4.

Molde berean norbaiti zuzen mintzatzean edo idaztean ez da -a erabiltzen, hori baizik:

"Edurne jator hori: Ukan nuen zure gutuna..."

"Nazkagarria haiz, txarri hori!"

Ez dute esango: "Edurne jatorra:". Ez eta "Nazkagarria haiz, txarria!" ere.

A mintzatzailea urruti dagoela adierazteko erabiliko dute.

"Txinara joan den Pedro txarria, gero eta txarriagoa da". Hurbiltasuna erabiltzeko 0 edo hori erabiliko dute.

4. Bixkaieraz ongi bereizten dira:

BEHAR akliboa eta BEHAR pasiboa.

Gipuzkeraz bezala ongi bereizten dira bizkaieraz:

- Ni etxean sartu naz/Nik etxean ma(ha)ia sartu dot

Bizkaieraz, ordea, zenbait tokitan (ez bizkaieraz egiten den toki guztietan) ongi bereizten dira:

- Ni etxean sartu bear naz/Nik etxean ma(ha)ia sartu be(h)ar dot.

Molde hau okerra dela maiz esan ohi da. Behar-ek esaldia aktibo egiten duela. Beraz, Nik etxean sartu behar dut esan behar dela.

Arrazoi honek deus gutxi balio du.

Giputzok eta bizkaitarrek guztiok esaten dugu:

Ni etxean sartu egin naiz/Nik etxean ma(ha)ia sartu egin dut.

Eginek berak ere ez du esaldi bat aktibo egiten. Egini edo behari lotua dagoen aditz sintagmak erabakitzen du esaldia aktibo edo pasibo denentz.

- Ni etxean sartu behar naiz/ Nik etxean sartu behar dot mahaia.

4.1. Bizkaieraz perpausa konpletibo niotak beste euskalki guztietan baiiiio hobeki bereizten dira. Eibarren, adibidez, moldeok guztiok erabiltzen dira.

## 4.1.1 -la/-na

- Etorri dala esan dau/badaki etorri dana
- Jakina, etorri dana
- Egia da Madrillen dauena

## 4.1.2. -la/nik

- Etorri dala uste dot/ Ez dot uste etorri danik. Ezta egixa etorri danik. <Hemen hauxe da egitura: Ez dot ogirik>

4.1.3. *GaMegaia*

Bizkaieraz ongi bereizten dira:

- Maite jausi da/Maite jausi ein da.
- Maitek jan dau/Maitek jan ein dau.
- Maite ez da jausi/Maite jausi ez da ein.
- Maitek ez dau jan/Maitek jan ez dau ein.

Aditz konpletiboa iragangaitz (jausi, etorri...) bada, egin erantsita ere, aditz laguntzailea ez da iragankor egiten.

Ez dute esaten: \* Maite jausi egin dau".

Halaberean bizkaieraz mintzo den zenbait eskualdetan honelaxe esaten da:

- Etorri zara (Deba ibarrean)
- Etorri be(h)ar zara (Deba ibarrean)

Hemen ere behar-ek ez du aditz laguntzailearen iragangaiztasuna aldarazten.

## 4.1.4. Bizkaieraz oraindik ere badira beste euskalMetasi jokatzen ez diren aditz trinkoak:

- Ihardun: diardut, ziardu(e)n.
- Eritzi: deritzot, deritzo, zer deritzozu?
- Eragon: bedar ebaten badaragoio.
- Eutsi: etzeari dautsala garajea dao.

#### 4.1.5. *Sustantibo itxura duten antzinateko molde bikainak*

Aramaio, Arrasate, Onati, Eskoriatza, Aretxabaleta inguruetan batez ere, eten gabe erabiltzen dituzte aditz-substantibo moldeak. Moldeok antzinateko euskararen usain ona dute. Beste euskalki guztietan galdu egin dira.

##### 4.1.5.1. -ketan moldca

Geldiketan zara, otziketan da (hozten da), jarraiketan dot, orri kimaketan nabil, ospaketan da, isilketan die, eskaketan deue, ori konponketan diru asko gastau bier, ezaguketan dot, adiketan dot, pentsaketan debe, zainketan dogu, ifinitzu esnea beroketan, ustelketan dao

*Axular.* Eta zertako ibili behar zara seinalatzeketan, eta berzteri kargu emanketan. 162

##### 4.1.5.2. -ketarren

- Bestiekin ongo geldiketarren: gelditze arren

Beste euskalkietan erabiltzen diren moldeak, gelditzen zara, hozten da... erromanizatuagoak dira.

##### 4.1.5.3. -kera nioldca

Gauza bera esan liteke illunkeran, jauskeran eta horien antzeko moldeez.

Guk iluntzean, iluntzerakoan, jaustean.. erabiltzen ditugu, hots, molde erromanizatuagoak.

Hemen lehenago esanda arraesango dut: belarrientzako moldeok ez dira beharbada oso goxoak. Bai euskaldun eta indartsu, ordea!

Substantibo molde eder horietatik guri banaka batzuk bakarrik gelditu zaizkigu:

- Urketan da, egurketan ari da, orrazketan dihardu. Baina ez gerundioaren ordezekoak egiteko.

#### 4.1.5.4. -tan (nnigatugabekoen bukaera) duten nioldeak, beste euskaUKietako -tzen-en ordezk.

Pentzetan dot, uste eztana gertetan da batzuetan, ze pase-tan jako, arrapetan dabil, berotan dau, alabetan dozu, batonba-tek bere burua abonetan dau, asko kostetan da, gomutetan naz,

biajetan dot.

Erronkariko euskaraz ere gauza bera ikusten dugu:

Etseko ardaunetik ezda nor ere orditan (Azkue: atsotitzak 1335)

- Liburu zerratuak ez du (dio) inori ere eratsukitan Azk [Isilik dagoenarengandik deuz ikasten ez]
- Alegratan dei arrotzek xiten (etortzen) drenean
- Lein utsitan (itsutzen) da begi andia ezik txikerra Azk
- Mi(hi)az egiten dan mina da azken sontotan (sendatzen) dena Azk
- Mendiak egiten deinean sonu, tenprak euri barrotatan du Azk 1208
- Anixko beatan dion etsukandreak, txik (gutxi) urutan (iruten) du Azk 1264

#### 4.1.5.5- -tan -tera-ren ordezk

- Biajetan noa/Biajatzera noa (Gipuzk.)
- Banetan zoaz/Banatzera zoaz (banarte a, erdaraz bezala. Gipuz.)

#### 4.1.5.6. -ean moldca -tuz-en ordezk:

- Preguntien Erromara fueten: preguntatuz...

## 4.1.5-7. Erdararen aiitea ez diiteii inoMeak.

- Berbetan egin: Berba latinetik heldu bada ere, zein molde bikaina. Bizkaitarrentzat hitz egitea, mintzatzea "to do in words", "hacer en palabras" da. Hemen ere ez dago indoeuropar usainik. Egitura erabat euskalduna da.

## 4.1.5.8. -tako:

- Erropie plantxetako. Denporie pasetako.

## 4.1.5.9- -ten -tera-ren orde. Bizkaieraz erdal usain guttiago du.

- Sagar erosten joan da.
- Egur ekarten doa.

## 5- KONJUNTZIOAK

Euskalki guztien artetik bizkaierak du konjuntzioak perpau-saren azkenean ipintzeko senarik biziena, euskarari dagokion bezala. Indoeuropar hizkuntzarik gehienentsuek konjuntzioak aurrean ipintzen dituzte.

- Nik esan neutson bane.
- Nik esan neutsen, ba(da).
- Nik esan nion barren! <bai arren> (Deba ibarrean) (jPero si yo se lo dije!).
- Ori ez ein, gero!
- Nik ori ekarri arren. Orain hauxe jarri da modan: "NAHIZ hori ekarri". Askoz erdaldunago, indoeuropar moldetan, hots, konjuntzioa hasieran ipiniz.

## 6. ERREPIKATZEA.

Errepikatzearen bidez, esamolde politikak sortzen ditu bizkaierak.

### 6.1. Aditza aldi diferentetan errepikatuz.

- Ak emautzen emotekuek.
- Zu zaz egotekue.
- Bearra amaitxuta deuko euki.
- E(g)on badau.
- Arena da izan.
- Polita da izan Irune.
- Jakin badakigu.
- Fuen badoie edo Badoa joan.
- Etorri badator. Etorri zatoz. Joan zoaz.

### 6.2. Sustantiboa errepikatuz.

Guztietan esan beharrean bizkaieraz sustantiboa berresaten da.

- Frakan frakan ez dao gizona.
- Lekuen lekuen txakurrak ortosik .
- Etxien etxien malue.
- Astean astean, ilean ilean etorten da

### 6.3- Beste euskalkietan ere bai, baina bizkaieraz sarritxoago entzuten da superlatiboa hitz bera arracsanez.

- On ona da.
- Polit politta da.
- Igir igirrian dao

## 7.

### 7.1. Konparaketan konparatzen den sujetoa azkenean ipiniz.

- Bi txar bano, bat ona oba.



7o2,, Pare, dozena bezala, kantitatea denez gero,  
deter iiiinatzen duei faitzaren aurrean ongi ipirttzei  
dute bizkaieraz.

Bizkaieraz eta gipuzkeraz ederki: Dozena bat arrautze jan  
zuen

*Bizkaieraz*

Pare bat arrautza jan zuen.  
Pare bat alkandora jantzi zuen.

*Gipuzkeraz*

Arrautza pare bat jan zuen.  
Alkandora pare bat jantzi

Ikusten denez, bizkaierak josten ditu ongi hitzak. Sintagma zuzenak "arrautza jan", "alkandora jantzi dira", "zazpi kaja tomate jan" edo "bost baso ur edan" diren bezala. "Pareak" edo "dozenak" ez dira jaten.

8. BITKAERA

Bukatzeko, hasieran esandakoa berresateak merezi du. Euskal Herri osoan baserritarren euskara zinez ederra da. Zeanurin, Berraeon, Goizuetan, Larrainen, Altzainen, Azpeitian, Idiazabalen, Amaiurren, Aiherran, ... baserritarrek egiten duten euskara zoragarria da.

Bestalde, herri bakoitzean gordetzen dira besteetan galdu diren hitzak, esamoldeak, atsotitzak eta ipuinak.

Bizkaiko baserritarren euskarak, berriz, belarrirako gogortxo eta latza bada ere, egitura aldetik ez dio zorrik inongo euskarari.

*Gotzon Garate Goihartzun*

## BIZKAIERA

### BIBLIQGRAFIA

- AGIRRE, J.M., *Euskal gramatika deskriptiboa I-II*. Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1991.
- ALBERDI, X., SARASOLA, I. *Euskal Estilo libururantz*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2001.
- AREJITA, A. Gallastegi, I., *Joskera: Esaldi Bakuna*. Labayru Ikastegia, Bilbo, 1989-
- Arrasateko euskara*, Arrasateko Udala, 1999.
- AZKUE, R.M., *Morfologia vasca, I-III*. La Gran Enciclopedia Vasca, 1923-1925.
- BARAIAZARRA, Luis, *Bizkaieraren auzia*, KARMEL, 1985-2.
- BARAIAZARRA, Luis, *Bakoitzari berea, Jainkoaren legea. Frai Bartolomeren ohoretan*, KARMEL, 1989-1.
- BARAIAZARRA, Luis, "William Rollo-ren *The Basque dialect of Marquina*", KARMEL, 1983-3/4.
- BARAIAZARRA, Luis, *Markina-Xemeingo euskara aztertzen*, EUSKERA, 1986-1.
- BILBAO, Begofia, *Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak*, Bermeoko Udala, 2002 [o.s.].
- Bizkai euskeraren jarraibide liburua, Lehenengo pausuak*. Labayru Ikastegia. Bilbao Kutxa Fundazioa. Bilbao, 2001.
- Bizkaieraren idaztarauak. Deklinabidea eta aditza*. Arejita, A., Eguzkiza, J., Irazola, JM., Uriarte J., Gasteiz, 1983-
- Elhuyar hiztegia. Euskara gaztelania. Castellano vasco*, Elhuyar, Usurbil, 1996.
- ESTORNES Lasa, Bernardo, *Diccionario espanol-uskara roncales. Erronkariko uskararen hiztegia*. Gobierno de Navarra, Pamplona, 1997.
- ETXEBARRIA Ayesta Juan Manuel, *Euskal urtea ohituraz betea*, Ibaizabal, 2003 [Dena aztertua eta o.s.].

- ETXEBARRIA, Juan M., *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Zornotza, Ibaizabal, 1991-
- EUSKALTZAINDIA. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*. Euskaltzaindia, Bilbo. 1985-tik aurrera.
- EUSKALTZAINDIA, *Hiztegi batua*, Bilbo, 2000.
- GARATE, Gotzon, *Erdarakadak. Euskaraz ongi mintzazeko histegia. Zazpiprobintzietako adibideak*, Mensajero, Bilbao, 1988.
- GARATE, G., *Euskarazko tradizioa et molde berriak*, Mensajero, Bilbao, 2003.
- GARATE, Gotzon, 30466. *Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbias*. BBK, Bilbo, 2003.
- Hiru mila hiztegia. Euskara-gaztelania/Gaztelania-euskara*, Adorez 7, Bilbo, 2002.
- IRAZOLA, J.M., *Euskal aditza: bizkaiera eta batua*. Hizkuntza eskola, Bilbo, 1985.
- Labayru hiztegia. Bizkaiera eta batua (b)uztarturik*. Labayru Ikastegia, BBK Fundazioa, Bilbao, 2003.
- LAFITTE, P., *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Litteraire)*. Elkar, Donostia, 1979-
- LARRANAGA, Jone, *Antzuolako bizkera*. Antzuolako Udala. 1998.
- MITXELENA, L. SARASOLA, Ibon, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Mensajero, Bilbo, 1989tik aurrera.
- MOKOROA, J.M., *Ortik eta hemendik*. Labayru Ikastegia. Eursko Jaurlaritza. ETOR, Bilbo, 1990.
- MORALES, J., *Hura eta hera. Haren, beraren eta here*, Senez 1995, 16, 81-92.
- MORRIS, Mikel, *Euskara-ingelesa. English-Basque*, Harluxe Fundazioa, Donostia, 1998.
- MUGIKA-BERRAONDO, Placido, *Diccionario castellano-vasco*, Mensajero, Bilbo, 1965.

- MUJICA, Luis M., *Diccionario general tecnico. 1. Castellano-Euskera. 2. Euskara-gaztelera*. Bilbao, 1983.
- ORMETXEA, Txipi, *Aramaioko euskara*. Aramaioko Udaletxea, 2002.
- OSA, E. *Euskararen Hitzordena (Kornunikazio Zereginaren Arabera)*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 1990.
- SARASOLA, Ibon, *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Irun 1977.
- SARASOLA, Ibon, *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazio, Donostia, 1996.
- UNED, *Begarako euskera*, Bergara, 1988.
- URIBARRIN, Patxi, *Aramaionako euskeraren berezitasunak, euskal idazleak, eta euskeraren egoera eta etorrera*, Euskera XVII, 157-167, 1972.
- UZEI: Hiztegi estimagarri asko atera du. Bai orokorrak, bai sinonimoena, bai alor berezitakoak: Literatura, Fisika, Politika...
- ZUAZO, K., *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun, 2000.
- ZUBIMENDI, J.R., Esnal, P., *Idazkera-Uburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1993.
- ZUBIRI, I., *Euskalgramatika osoa*. Bilbo. Didaktiker, 1995.